

2023ko Batzar Nagusia

BATZAR NAGUSIKO AKTA

Data: 2023/05/27

Tokia: Girona (Parc Tecnològic de la UdG, Pic de Peguera 11, Girona). Parte-hartzea bazkide guztien aldetik zabalagoa izan zedin —baita egoitza sozialetik urrun zeudenen aldetik ere—, eta Som Energia, SCCLren Estatutuen babesean, Batzarra Internetarako konexiodun edozein gailurekin linean jarraitzeko aukera egon zen www.somenergia.coop kooperatibaren webgunean. Gai zerrendarekin lotutako dokumentu guztiak aldeztatik aurretik posta elektronikoko bidez helarazi zitzaizkien bazkide guztiei. Kooperatibaren www.somenergia.coop webgunean ere eskuragarri zeuden dokumentuak.

Hasiera-ordua: 10:00ak bigarren deialdian.

Amaiera-ordua: 14:00ak.

Bertaratutakoen zerrenda: 466 bazkide. Ikus bertaratutakoen zerrenda eranskinean.

Gai-zerrenda:

1. Aktaren kontu hartzaileen hautaketa
2. Ongietorria eta konexioa Tokiko Taldeekin
3. Gizarte- eta ekonomia-memoria
4. Urteko kontuak eta 2022ko emaitzaren aplikazioa
5. Kontu Hartzearen txostena
6. 2022ko ekintza-planaren itzulkina
7. Orain arte onartutako mozioen jarraipena
8. Som Energiaren egutegi demokratikoa
9. Barne Araudiaren aldaketak
10. 2023ko ekintza-planaren aurkezpena
11. 2023ko aurrekontuaren aurkezpena
12. Kapital sozialari egindako borondatezko ekarpenen gaineko urteko interes-tasa
13. Generation kWh berriz irekitzea
14. Errektore Kontseiluko karguak berritzea
15. Kontu Hartzailetzako karguak berritzea
16. Errektore Kontseilua ahalduntzea hartutako akordioak gauzatzeko eta horien inskripzioa egiteko

1. Aktaren kontu-hartzaileen hautaketa

2023ko Batzar Nagusiko presidente Ricard Jornetek Batzarra irekitzat eman eta sozietate-oinarri guztiari ongietorria eman dio 14. edizio honetara.

Mahaiko Errektore Kontseiluko kideak aurkeztu ditu: Càrol Coll, Paco Jofra, Aina Barceló, Jaume Josa, Borja Barredo eta bere burua, Ricard Jornet; baita Madrilgo Tokiko Taldetik konektatutako María Jesús (Aje) Arruti ere.

Presidenteak Batzarrari jakinarazi dio idatziz igorritako ordezkari-tza-eskaera guztiak onartzen dituela. Zerrenda honetan biltzen dira:

Bazkidearen izena	Ordezkaria

Ricard Jornetek Batzarreko aktaren kontu-hartzaile izateko bi boluntario eskatu ditu. Bazkide hauek hautu dira: Yaiza Blanch Górriz eta Silvia García Amadó.

2. Ongietorria eta konexioa Tokiko Taldeekin

Jaume Josak lehenik, Gironara bertaratutakoei, eta linean jarraitzen dutenei, eskerrak eman dizkie. Horien artean haiekin etengabe harremana duten Som Energiaren Kanaria Handiko, Sevillako, Iruñeako, Madrilgo, Valentziako eta Bartzelonako tokiko taldeei.

Laburki aipatu ditu Som Energiak gaur egun dituen erronka batzuk: sorkuntza propioa handitzea, kontratu-kopuruaren beherakada gelditzea (neurri batean une bateko erabaki koiuntural baten ondorio izan da kooperatiban jazotzen ari den gertakari hori). Gogoratu du kooperatibak balio eta arreta handia eskaintzen diola dibertsitateari, bai genero-dibertsitateari, bai beste era askotakoari. Horrek hizkuntza-dibertsitatea ere kontuan

hartzten du, hizkuntza-burbuilak ekiditeko eta zentzu horretan ere dibertsitatea sustatzeko asmoz.

Larrialdi klimatikoak eta klima-aldaketak sortarazten dion ezinegona partekatzen du, bazkide askok duten kezka da. Munduko pertsona asko jada horren ondorioak paratzen ari dira eta uste du klima aldaketan sinesteko ez dela Urgelleko Ubidearen itxiera bezalako gertaerak jazo arte itxaron behar. Itxierari dagokionez, ez zen lehenago horrelakorik jazo ubideak dituen 160 urteetan. Jaumek aipatutakoaren artean zifra bat nabarmentzen da: 600 milioi pertsona lekualdatu dira munduan aldaketa klimatikoaren ondorioz. Zifra horiek kezkatu beharko gintuzkete eta Lurreko beste toki horiekin elkartasun handiagoa adierazi beharko genuke.

Jaume Josak Madriletik linean konektatutako Errektore Kontseiluko kide Aje Arrutiri hitza eman dio.

Aje Arrutik Tokiko Taldeak agurtu ditu eta bide eman die: Ferranek hitz egin du Bartzelonako Tokiko Taldean, 30 pertsona Batzarra jarraitzeko elkartu direlarik XX. mende hasierako Bartzelonako kooperatibismoaren adierazgarri den Lleialtat Santsenca eraikinean; Iruñeako Energia Gara taldea ere han izan da; eraldaketarako helburuak partekatzen dituzten pertsonekin Batzarrean egoteak pozten dituen Madrilgo Tokiko Taldeko 15 bat pertsona ere bai; Batzar Nagusia entzuteko bildutako Valentiako Tokiko Taldea; eta Torreblancan, Torreblanca Ilumina Energia Komunitatearen bulegoan bildutako Sevillako Los Alcoreseko Tokiko Taldeko 15 pertsona: energia onak argitzen gaitu. Aje Arrutik konexio-txandak itxi ditu Tokiko Taldeetako kideei han izatea eskertuz.

3. Gizarte- eta ekonomia-memoria

Aje Arrutik jarraitu du kontuak emateko aurkezpenarekin. Aurkezpena ekonomia sozial eta solidarioaren estilokoa izan da, neurri batean kooperatibaren gizarte-balantzean oinarritutakoa. Balantze hori kooperatibaren 2022ko gizarte-, ingurune- eta ekonomia-jardueraren eta -eraginaren Errektore Kontseiluaren laburpen baten bidez egiten da.

Kooperatibaren bizitza

2022an zehar 8.467 pertsona- eta erakunde-bazkide gehitu ziren kooperatibara. 2022an beherakada txiki bat egon zen beste urteetako kopuruarekin alderatuta. Izan ere, 2022ko zailtasun ekonomikoak, prezio altuak, gerra eta krisialdi-testuingurua kooperatibaren bizitzan ere nabaritu da bazkide-kopuruak behera egin du. Beste urte batzuetan baino alta gutxiago eta baja gehiago izan ditugu. 2.230 pertsonak baja eman dute. Berri ona sozietate-oinarriaren hazkunde garbiak gora egin duela da eta 2022 amaiera aldean, 83.765 pertsona- eta erakunde-bazkide genituela kooperatiban.

Sozietate-oinarriaren banaketari dagokionez, jakinarazten du % 68,5 Katalunian dagoela eta gainerakoa, proportzio desberdinean, penintsula osoan zehar banatuta. Nabarmendu du 2

bazkide daudela Melillan eta 18 munduaren gainerakoan eta hori Som Energia nazioartekotzeko hasiera dela.

Kooperatibak 2022an izandako hainbat mugarriz mintzatu da, horien artean, Som Energiak 13 milioi euro gainditu dituela borondatezko ekarpenetan.

Era berean, partaidetzaren diagnostia egin zen, emaitzak aurkeztu ziren eta, ondorioz, bazkideen partaidetza hobetzearen alde lan egingo da. Kooperatibaren egutegi demokratikoari buruzko hausnarketa bat ere egin da eta hausnarketa horretan mozioak lantzeko moduari buruzko prozedura bat gehitu da.

Som Energiako kooperatibisten % 94 pertsona pribatuak dira, baina badira enpresak, erakundeak, beste kooperatiba batzuk, administrazio publikoa eta beste talde batzuk ere.

Merkaturatzea

Kontratuen eta megawatt ordutan (MWh) merkaturatutako energiaren eboluzioari dagokionez, aurtun, jada aipatu den eta aurrerago ere aipatuko den moduan, kontratu kopurua jaitsi egin da (123.400 vs. 133.260 2021ean). 2022a urte zaila izan da eta aldi berean, Som Energiak lehiarako hainbat muga ditu. Merkaturatutako energiari dagokionez, horren kopurua jaistea (372.879 MWh 2022an vs. 429.985 MWh 2021ean) ez da kaltegarria desazkundearekin bat egiten duen kooperatiba baterako, baina hori ez da aplikatzen kontratu-kopuruaren kasuan. Kontratu-kopurua aztertzerakoan kontuan hartu behar da Som Energiak lotutako bazkiderik gabeko kontratuak zituztenak bazkide egiteko kanpaina bat egin zuela. Guztiak ez zirenez bazkide egin, kontratu-kopuruak behera egin zuen.

Energia berriztagarriaren ekoizpena

2022an ekoizpen propioaren gorakada bat egon da: 2018an % 3,3 izatetik egun % 6,2 izatera pasa da. Hazkunde hori onuragarria da, baina hala ere gutxi dela deritzo, ez dela nahikoa. Horrela, kooperatibak ekoizpen propioa areagotzeko konpromisoa du indar handiagoa lortzeko eta guztiok gauzatu nahi dugun eta Som Energiaren lehentasun den eraldaketa benetan mamitu ahal izateko.

Aje Arrutik, halaber, orain kooperatibak dituen Generation kWh proiektuak aurkeztu ditu: martxan daude La Serra Anglesolan (Lleidán), Fontivolar Fontiverosen (Ávilan) eta Alcolea del Ríokoa (Sevillan).

Ekoizpen-mapari dagokionez, Som Energiak 15 eguzki-instalazio ditu, biogas-instalazio 1, instalazio hidrauliko 1, beste 2 eguzki-instalazio ditu izapidetze prozesuan eta beste 1 eraikuntza-lanetan.

2010etik 2022ra energia berriztagarriko proiektuetarako egindako ekarpenen guztizkoa 18,5 M eurotakoa izan da.

Som Energiak mugari handia lortu du Generation kWh proiektu berritzailearekin. Berritzailea da ekarpen-eredu horretan inbertsioak finantza-itzulkin hutsa izan ordez energia-itzulkina duelako. Orain era horretako hiru proiektu daude martxan: Alcolea del Río, Fontivolar Ávilan eta La Serra Anglesolan, azken hori administrazio-izapideen fasean. Kooperatibaren historian, 4.552 bazkidek bat egin duten Generation kWh ekimenarekin, batez beste pertsonako ia 1.000 euroko ekarpena eginez eta autoekoizpen kolektiboarekin 7.440.927 kWh lortu dituzte.

Autoekoizpen-kontratuak ia bikoiztu egin dira 2021etik 2022ra, berdina gertatu da instalazioen kWp-ekin eta 2022ko urteko ekoizpenarekin. Autokontsumoa eta autoekoizpena bultzada itzela izaten ari da Aje Arrutik azpimarratu duenez.

Bezeroen autoekoizpen-instalazioetarako erosketak kolektiboek dagokienez, jada bukatu diren eta martxan dauden instalazioen oso datu onak daude.

Lan-ingurunea eta berdintasuna

Orain Aje Arrutik Talde Teknikoaren eboluzioari buruz hitz egin du eta horri buruzko berri on bat eman du: lehen aldiz Som Energiako Talde Teknikoan gizonezko baino emakumezko gehiago ari dira lanean, hori beti horretarako baldintza mesedegarriak ez dituen energiaren sektorean. Hori garrantzi handiko datu kualitatiboa da bere burua ekofeministatzat duen kooperatiban, era berean, garrantzitsua da denboran zehar soldata-ratioa 2,5ean egonkor mantendu izana. 2022an kontratatuko pertsona-kopuruak % 3,4 egin du gora. Hazkunde hori zifren gorakadarekin lotuta dago. Berdintasunean oinarritutako kooperatiba ekofeminista da. Berdintasuna ulertuta, genero-berdintasunaz gain, denon lanaren helburu den gizarte-justiziarako bide gisa: benetako aukera-berdintasun gisa. Zentzu horretan, Som Energiak berdintasuna lortzeko lanean jarraitzen du. Ekintza horietako batzuk aipatu ditu: aukera-berdintasuneko plana, talde osorako generoari eta feminismoari buruzko prestakuntza, soldata-auditoretzak eta lan bizi bateratzen eta berdintasunean laguntzen duten berariazko baimenak.

Gizarte-eragina: borondatezko zentimoa edo dohaintza

Som Energiaren osagai den xedearen zati baten gizarte-eraginari dagokionez, Aje Arrutik borondatezko dohaintzaren (kooperatibako fakturen kWh bakoitzeko zentimo batekin osatzen den funtsa da) aplikazioari buruz hitz egin du. Zenbatekoaren mugei buruz esan du aurten energia gutxiago fakturatu denez, aurten jasotako borondatezko dohaintzaren zenbatekoa pixka bat baxuagoa izan dela. Aurretik Batzar Nagusian erabakitako kategorietan erabiliko da 2022an jasotakoa: batez ere Tokiko Taldeen lana diruztatzea, Energia Komunitateei laguntzea, sorkuntza-proiektu berriak bilatzea, gure kooperatiba-identitatearen parte den energia-pobretasunaren kontrako borroka gauzatzea eta lobbyen aurka borroka egitea, hau da, energia- eta gizarte-eraldaketa sustatzen duten politika publikoen alde lan egitea.

Gizarte-eragina: Germinador Social

2022an Germinador Social antolatu zen 6. aldiz. Kooperatibak Fundación Coop57rekin batera bultzatutako energia-trantsiziorako lehiaketa-itxurako berrikuntza ekimena da. Urte horretan 26 proiektu berritzaile aurkeztu ziren eta horietatik 6k kategoria hauetakoren batean irabazi zuten: «energia-pobretasunaren aurkako borroka», «energia-transizioaren aldeko lana» eta Som Energiaren erronka handi den «Energia Komunitateak».

Energia Komunitateak

Aje Arrutik iragarri du denbora oso gutxi barru Som Comunitats deituko den webgune bat sortuko dela. Horren bidez, kooperatiba ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegitik sorkuntzarako, kudeaketarako eta partaidetzarako plataforma irekia prestatzen ari da. Plataforma horretan 7 erakundek egiten dute lan: Som Energiak, Coop Devsek eta EPluralen bidez Epik, Mycelium Networkek, Som Mobilitatek, Sunok eta TandemGok.

Tokiko Taldeak

Aje Arrutik Som Energiaren Tokiko Taldeengandik bueltan jasotzen duenaz hitz egin zuen, kooperatibaren indarrak: 2022 amaieran kooperatibak zituen 57 tokiko taldetik, 46k erosketa kooperatiboak bultzatu dituzte aurtan. Datu horrek Tokiko Taldeek elementu eraldatzaile gisa duten indarra frogatzen du. Gainera, horietako 13k energia-komunitateak ere sustatu dituzte. 2022an ez da Tokiko Talde gehiagorik gehitu, baina hori laster aldatuko dela sinesten dugu, kooperatibarako, energiarako eta mundurako garai berriak datozen neurrian.

4. Urteko kontuak eta 2022ko emaitzaren aplikazioa

Ricard Jornetek azaldu du puntu hori eta bozkatu egin da.

Gertaera esanguratsuak

2022a urte zaila izan da. Azken urteetan energiaren batez besteko prezioaren eboluzioari buruzko grafikoaz hitz egin du. 2012tik 2020era energiaren prezioa beti zegoen 40 €/MWh eta 55 €/MWh artean. Ondoren, 2021ean jauzi ikusgarria egin eta batez bestekoa 111 €/MWh-koa izatera pasa zen. Jada 2022 urtean, denetik ikusi genuela uste genuenean, berriz ere izugarri igo zen, % 60, eta energia 167 €/MWh-ko batez besteko prezioa izatera iritsi zen. Horrek asko zaildu dio Talde Teknikoari eta Errektore Kontseiluari tarifak aurreikustea eta kudeatzea: Martxoan Ukrainako gerratearekin 700 €/MWh-ko gailurra egon zen eta aldi berean, ordu hartan prezioek izango zuten bilakaerari buruzko ziurgabetasun handia zegoen. Ricard Jornetek azaldu zuen kooperatibak prezioak zehazten dituela behar den energia erosi aurretik. Energia horren zati bat etorkizunen merkatuan erosten da eta beste bat eguneko merkatuan. Hegakortasun handiak eta prezio-aldaketek askok eragin diote Som Energiaren marjinari.

Egoera historiko horren ondorioz, elektrizitate-sektorearekin lotutako 80 lege-aldaketa baino gehiago egon ziren 2022an. Horrek oso esfortzu handia sortarazi dio Talde Teknikoari sistemen moldaketan, komunikazioan eta beste gai askotan. Egoera horri lan-ordu askorekin eta ardura handiarekin egin dio aurre. Ricard Jonetek garrantzitsu deritzo moldatzeko eta garatzeko egindako esfortzu guztia aitortzeari eta kooperatiba indartuta ateratzen dela dio.

Izandako aldaketetako bat izan zen BEZaren tasa berriz ere aldatu zutela, % 10etik % 5era pasa zen. Oraindik gehiago igo zen kooperatibak hileru Ogasunari aurreratzen dion diferentziala Som Energiak fakturak % 21eko BEZarekin ordaintzen baititu.

2021 amaieran hartutako neurriei esker (bankuaren finantziazioa eta kapital soziala jaulkitzea borondatezko kapitalari 10 M euroko ekarpenak eginez eta 2022an horrekin jarraitzea 5 M euro gehiagoko ekarpenekin), egoera horrek altxortegian sortu zituen tentsio handieneko momentuei irmotasunez eutsi ahal izan zitzaion.

Errektore Kontseiluak goraiatzeko du horren urte zailaren ondoren kooperatiba indartuta ateratzen dela Talde Teknikoaren lanari eta bazkideen laguntzari esker.

Ricard Jonetek prezioek 2022an izan zuten eboluzioa oraindik zehatzago azaldu du OMIE prezioak Som Energiaren prezioekin alderatuz. 2022ko lehenengo 9 hilabeteetan Som Energiaren erosketa-prezioak OMIEkoak baino baxuagoak izan dira, uztailean izan ezik (hilabete horretan bi indizeak parekatu ziren). Jarraian joera-aldaketa bat izan zen, martxoko gailurrak etorkizun askori eragin zirelako. Gogoratu zuen Som Energiak gutxi gora behera energiaren % 80 erosten duela etorkizunen merkatuan eta % 20 eguneko merkatuan (% 20 horren % 6a izan ezik, hori autoekoiztatzea da). Azaldu zuen martxoko gailurrean etorkizunen merkatuan saltzen zutenetik inork ez zituela prezioa jaitsi nahi eta horregatik sortu zirela tentsioak, geroz eta gehiago kostatzen zelako prezio onean erostea. Kooperatibak 2022ko azken bi hilabete horietan garestiago erosi zuen etorkizunen merkatuan.

Emaiza ekonomikoa: galerak eta irabaziak

Ricard Jonetek hemen adierazle nagusiak birpasatu ditu.

Salmentei dagokienez, 2021ean 80 M euro fakturatzetik 2022an 134 M euro fakturatzera pasa zen. Paradoxikoki, energia gutxiago saldu arren, prezioa asko igo zenez, askoz gehiago fakturatu zen. Erosketa-sailean ere berdina gertatu zen: 2021etik 2022ra kontu-saila igo izanaren arrazoia energiaren kostuaren igoera izan zen.

2022an merkaturatze-marjina ohiz kanpo igo zen batez ere etorkizunen merkatua aurreikuspen zailtasunagatik. Zentzu horretan, Talde Teknikoak eta Errektore Kontseiluak aurreikuspen kontserbadoreak egin zituzten eta aurreikuspen horiek 2022 urtean zehar 16 M euroko marjina hori sortu zuten azkenean.

Langileen gastuak era nabarmenean igo dira, batez ere lanean hasi den jende berriagatik eta taldeek geroz eta trebetasun gehiago dituztelako.

«Bestelako jarduera-gastuak» atalean hainbat sail daude, horien artean Singulars eta hori ere igo da.

Eta kooperatibaren EBITDAk ere igoera handia izan du: 2021ean 1,7 M eurokoa izatetik 2022an 10,5 M eurokoa izatera pasa zen.

Amortizazio-saila ez da esanguratsua Som Energiaren proiektuak filialetan eraman zirelako aurrera.

Finantza-emaitzaren sailari dagokionez, igo egin da 2021 eta 2022 urteen artean (2021ean 11 mila eurokoa izatetik 2022an 680 mila eurokoa izatera) bankuarekin finantziario-akordioak egin zirelako.

Hezkuntzarako, formakuntzarako eta sustapenerako funtsa ere igo egin zen, 2021ean 106 mila eurokoa izatetik 2022an 646 eurokoa izatera pasa zen.

Kooperatibaren emaitzak ere gora egin zuen: 2021ean 1,6 Mkoa izan zen eta 2022an 9,1 Mkoa. Horietatik 7,3 M euro gelditzen dira kooperatiban zerga ondorengo emaitza gisa. 7,3 M euroko mozkin horrek Som Energiaren konpromisoa zabal gainditzen du. Zentzu horretan, Ricard Jornetek dio soberakin hori kooperatiban geratuko dela proiektu berriak bultzatu ahal izateko erreserba modura. Era berean, zenbateko horrek 2023n tarifak doitzen lagundu du, baita 2023ko lehen 4 hilabete hauetako kooperatibak izan dituen galerak hatzen ere. 2022n lortutako mozkinak 2023ko lehenengo hilabete hauetarako kuxin ona da, alegia.

Ricard Jornetek dio Errektore Kontseiluaren barnean ere kooperatibaren mozkinak handitu behar diren eztabaidatzen ari direla: prezio oso egonkorreko urte batzuetatik gatzuz, baina hegakortasun handiko garaia da hau, ez da horrelakorik inoiz ikusi, eta askoz zailagoa da orain emaitzak aurreikustea. Ondorioz, ekonomia- eta finantza-esparruko sendotasunak garrantzi handiagoa.

Emaitza ekonomikoa: EBITDA eta mozkin garbia

Ricardek dio 2022an 10,5 M euroko EBITDA izan zela, eta 2021en 1,8 M eurokoa izan zela kontuan hartuta, hazkunde itzela izan duela. Salmentei dagokienez, EBITDA horren % 7,8koa da. Zenbateko hori % 0,5 eta % 2 artean kokatzeko konpromisoa zabal gainditu da.

Ricard Jornetek gogorarazi du 7.320.435 euroko soberakin kooperatibo hori bazkide guztientzat dela, eta kooperatiba indartu eta etorkizunerako prestatzen duela, bai proiektu berriak bere gain hartzeko aukera izateko, bai, egiten ari den moduan, tarifak doitzeko.

Emaitza ekonomikoa: 2022ko soberakin kooperatiboaren aplikazioa

SOM ENERGIA SCCLn sortutako soberakin kooperatiboak ez dira banatzen irabazi asmorik gabeko erakunde bat delako. Sortutako baliabide horiek kooperatiban geratzen dira berriz ere gure jardunean inbertitzeko. Hala ere, kontabilitate- eta merkataritza-mailan banaketa bat egiten da balantze barnean, honako hau izan zen 2022an: 7,3 M euro, 2,6 M euro borondatezko erreserba funtsean, 4,6 M euro nahitaezko erreserba-funtsean eta 52 mila euro

kapitalizazio-erreserban, legeak baimentzen duen gehiengoa.

Eraitza ekonomikoa: egoeraren balantzea

2021etik 2022ra Som Energiaren tamaina handitu da (54 M eurotik, 2021ean, 70 M eurora, 2022an). Hori berri ona da, balantzea batez ere ondare garbiaren bidez hazten baita. 2022ko 70 M euro horietatik 43,9 M euro bazkideen ekarpenak edo beste urte batzuetako erreserbak dira. Ricard Jornetek goraiatzeko du kooperatiba bazkideen esku dagoela, ez bankuen esku.

Pasiboarekin jarraituz, 9,4 M euroko banku finantzaketa bat dago. 16,4 M euroko pasibo korrontea, berriz, epe motzeko zorrak osatzen dute, batez ere Ogasunarenak eta hornitzaileenak.

Aktiboari dagokionez, aktibo korrontea 2021ean 39 M euro izatetik 2022an 56 M euro izatera pasa zen. Zehazki, 56 M euro horietatik, 20 M bermeetan daude, 20 M euro kutxan daude eta gainontzeko 16 M euroak bezeroen eskubideetan daude. Aktibo ez-korronteari dagokionez, 13,7 M euro ziren 2022 urtean. Zenbateko horrek barne hartzen ditu partaidetzapekoen maileguak eta 2021arekin alderatutako jaitziera, amortizazioengatik, bereziki, eta Fiareko Asomadako itzulketa barne hartzen duelako.

Taldearen egitura: partaidetzapekoak

Som energiak partaidetzapeko sozietate ugari ditu. Horien artean daude Som Renovables –instalazio fotovoltaikoen eta iturri berriztagarrien instalazioak merkatuan ordezkatzeko dituen sozietate bat–, sorkuntza-sozietate guztiak (fotovoltaikoak, biogas sozietate 1 eta hidrauliko 1) eta Som Energiak garapen-bidean dituen sozietate guztiak (horiek guztiak instalazio fotovoltaikoak).

partaidetzapeko sozietateak: sozietate sortzaileen emaitzen kontua

Sorkuntza instalazioek sortzen dituzten MWh-ei dagokienez, 2021ean 18.800tik 2022an 23.100 sortzera pasa zen, beraz, sorkuntza % 22 igo zen.

Energiaren sorkuntzaren bidez lortutako irabaziei buruz, esan zuen 2021etik 2022ra aldaketa txikia egon zela, prezioak barne PPAen bidez (barne-akordioak) itxita daudelako.

Ustiapen-gastuak 2021ean 688 mila euro izatetik 2022an 846 euro izatera igaro zen eta horrek guztiak aurreko 2021eko 1 M euroa berdindu zuen 1 M euroko EBITDA izan zuen ondorio.

EBITDAren zergen aurreko emaitza –amortizazioen gastuak, finantza-gastuak eta bestelakoak kendu ondoren– 191 eurokoa izan zen 2022an. Emaitza hori 2021ekoa, 363 mila euro, baino baxuagoa da. Sozietateen gaineko zerga kenduta, 143.000 euro geratzen dira, horixe da instalazio horiek taldeari egiten dioten ekarpena.

partaidetzapeko sozietateak: sustatzen ari diren sozietateen emaitzen kontua

Ricard Jornetek emaitza ekonomikoen aurkezpenean aurrera egin du eta sustatzen ari diren sozietateen, hau da oraindik lanean ari ez direnena, galdu-irabazien kontua azaltzen hasi da. Martxan ez dauden instalazioen jarraipena egitean datza, etorkizunean instalazio berri izango direnena. Haien egoeratik oraindik irabazirik sortzen ez dutenez, azterketa-fasean dauden instalazio horiek irabaziak sortzen dituztenetatik bereizi dira taldeari egiten dioten ekarpena aztertzeko. Hortaz, talde horretan ez da inoiz diru-sarrerarik egongo, oraindik ere sustatzen ari diren instalazioak direlako. Badaude ustiapen-gastuak, ordea, haietan inbertitzen ari diren baliabideak dira gastu horiek. Hori bi kasuistikak bereizita aztertzeko beste arrazoi bat da.

Sustatzen ari diren instalazio horietako 2022ko guztizko galerak 160.000 eurokoak izan dira. Beste urte batzuetan baina altuagoak dira haietan gehiago inbertitzen ari garelako. Gehitzen du Tejería proiektu eolikoan 111.000 euroko galerak egon zirela eta diru hori behin betiko galdu zela.

partaidetzapeko sozietateak: ordezkaritza-jardueraren emaitzen kontua, Som Renovables

Ricard Jornetek dio ordezkaritza-jarduera kooperatibak 2021ean Som Renewablesekin hasi zuten negozio-lerro berria dela. 2021ean bertan Som Renewablesek 39 instalazio ordezkatu zituen eta 67 instalazio 2022an. Eta orain, 2023ko maiatzean 150 bat instalazio ordezkatu ditu eta laster 150 gehiago ordezkatzeara aurreikusten da, 300 instalazio izango lirateke guztira. Ordezkaritzarako errentagarritasun atalasea 500 bat instalaziokoa da ekonomia-autosufizientziara heltzeko.

Hain berria den jarduera horren 2022ko EBITDA - 106.000 eurokoa da eta 100.000 euro garbiko galerak daude.

Grupo Som Energiaren 2022ko emaitza bateratua

Jarraian, Ricard Jornetek taldearen 2022ko datu agregatuen berri eman du: 139 M euro fakturatu dira eta hornikuntzarako 120 M euro gastatu dira, beraz, jardueraren marjina 18,5 M eurokoa izan da.

Jardueraren gastuak ia 8 M eurokoak izan ziren, EBITDA 10,6 M euroko EBITDArekin. Horren emaitza izan ziren 722 mila euroko amortizazioak eta 607 mila euroko finantza-emaitza, eta zergen aurretik 9,3 M euroko mozkinak eman zuten. Sozietateen gaineko zerga aplikatu ondoren, emaitza 7,5 M euroko mozkin garbia izan zen.

Ricard Jornetek gogoratu zuen puntu hori bozkatu egin zela: «2022ko urteko kontuen onarpena, hala badagokio, eta emaitzaren aplikazioa» gisa.

5. Kontu Hartzearen txostena

Borja Barredok informazioa emateko xedea besterik ez duen puntu hori azaldu du. (Asanbladari gogoratu dio, halaber, jada bozketa-epea ireki dela)

Carles Cuadern, Quim Ruiz eta Jesús Salgado kontu-hartzaileei eskerrak eman dizkie lanagatik, zehazki beti konplexua izaten den alderdi ekonomikoan egindako lan guztiagatik eta bazkide guztientzako Batzarraren webgunean eskuragarri dagoen txosten hau egiteagatik.

Gomendioetan, Kontu Hartzailetzak ekoizpen propioa handitzeko beharra adierazi du kooperatibak merkatuarekiko independentzia eta hainbeste desiratutako prezioen egonkortasuna lortzeko.

Azpimarratu dute oraingo altxortegia beteegi dagoela eta nahiz eta merkatuaren hegakortasunagatik egoera hori justifikatuta egon, eta sorkuntza-proiektuetarako inbertsio-plan baten beharra dagoela. Proiektu hori jada hurrengo urteetarako gauzatzen ari da.

Gaineratu dute tarifek energia berdearen merkatuan lehiakorrak izan behar dutela.

Kooperatibako kontratuak bazkideei lotuta egotea desiragarria da, horrela derrigorrezko kapital sozialarekin kooperatibaren hauspo ekonomikoa indar daiteke.

Egungo autoekoizpen-erritmoak Som Energiak etorkizunean soberakinen konpentsazio-prezioak zehazteko erabili beharreko irizpideak birdefinitzeari buruzko hausnarketa piztu du. Seguraski —gehitu du Borja Barredok— agertoki bat iritsiko da, zeinetan ekoizpen fotovoltaiko-epeek prezioei eragiteko moduko garrantzia izango duten, prezioak jaitsiz.

Kontu Hartzailetzaren txostenean nabarmentzen da, halaber, tarifa indexatuak kontratu berriak erakartzeko aukera eskiniko duela. Borja Barredok iragarri du tarifa indexatua proba-fasean dagoela eta hilabete gutxi barru prest izatea espero dutela.

Ondorio gehigarri gisa, Kontu Hartzailetzak Batzarrean aurkeztu diren 2022ko urteko kontuak onartzera animatu ditu bertaratutakoak.

6. 2022ko ekintza-planaren itzulkina

Jaume Josak azaldu du informazioa emateko xedea besterik ez duen puntu hau.

2022an nabarmendutako elementuak

- ¡Associate! kanpaina 4.000 bazkide berri baino gehiago lortu ziren lehenengo hiruhilekoan
- Kooperatibaren altxortegia era historikoan indartzea
- 2022 hasiera: argi-kontratuak etetea (urte erdiko itxaron-zerrendaren ondoren ireki zen)
- CE IMPLEMENTA eta Singulars dirulaguntzak (Energia Komunitateak bultzatzeko)
- Taldeak era jarraituan indartzea: Merkaturatzea, Sorkuntza, IT, CIF, Juridikoa.
- Merkatu-ordezkaritza zerbitzua indartzea eta zabaltzea: bilerak hamabost egunean behin CNMCn
- Gidaritza, Konpromisoa, Autohornikuntza Taldearen osaketa
- Koordinazio Orokor berria hautatzea
- La Serra, Asomada eta Tiuranako instalazioak aurrea joatea eta Asomadakoa datorren hastean irekitzea
- Datuen eta adierazleen azpiegitura identifikatzea eta sortzea
- Tarifak 5 aldiz eguneratzea eta sektorean etengabe arautegia moldatzea: ETrentzako berebiziko erronka
- Aukera Berdintasun Plana (ABP) martxan jartzea
- Pandemian zehar hasitako telelan-eredua ezartzea

Merkaturatzea: amaituta

- Kontratazio-inprimakien irekiera eta itxiera
- Araudia-aldaketak
- Tarifa-aldaketak
- Jabeak eta ordaintzaileak bateratzea
- Lotutako bazkiderik gabeko kontratuak kentzea
- Bulego Birtualetik hornikuntza-bajak eskatzea
- Bulego Birtualetik atzeratutako fakturak ordaintzea
- Hainbat fakturazio-sistema aztertzea
- Merkatuko prezioen hegakortasunera moldatzea
- 2022n araudian egon ziren 6 aldaketetara moldatzea

Merkaturatzea: martxan

- Sarerako hirugarrenen sarbidearen (ATR) formatu berrietara moldatzea (banatzaileen eta merkaturatzaileen arteko kudeaketa)

- Konpentsatu gabeko soberakinen kudeaketarako prestakuntza
- Jada gidaritza-proban dagoen tarifa eskaintzeko prestaketa. Uda eta gero martxan jarri ahal izatea espero dugu
- Partaidetza aktiboa CNMCren bileretan
- Arreta- eta laguntza-eredua birpentsatzea eta indartzea
- Autokontsumo partekatua sarean
- Generation kWh eredu berria
- Zorrari eustea
- Ordezkaritza-zerbitzua martxan jartzea
- Eskaria malgutzeari buruzko RescoopVPP proiektua garatzea

Sorkuntza

2022an Som Energiaren instalazioetan 24 bat GWh ekoiztea espero zen, baina ia % 7 gutxiago ekoiztu da hainbat faktoreengatik: alde batetik, argi gutxiago egon da eta, bestetik, biogas instalazioetan eta instalazio hidraulikoetan hainbat aberia egon dira. Hori dela, azkenean ekoizpena 22,8 GWh ingurukoa besterik ez da izan. Energia horrek kooperatiban merkaturatutako energiaren % 5 inguru hartzen du.

Som Energiak ekoiztutako energia-nahasketaren % 84,6 energia fotovoltaikoa da. Gelditzen den % 15a biogasa edo energia hidraulikoa da Jaume Josak adierazi duenez.

Martxan dagoen sorkuntza

- Sarearen bidezko autokontsumo-moduko hiriko sorkuntzarako gidaritza-probak hastea.
- La Serrako (Anglesola, Lleida) eguzki-instalazio fotovoltaikoa eraikitze baimena lortzea eta eraikitzen hastea. Som Energiak Katalunian, lekuan bertan, izango duen lehenengo instalazioa izango da, mugarri handia da. 2018an hasi ziren horretarako izapideak eta administrazioak 2022ko otsailean eman zuen baimena. Instalazioa eraikita egon arren, ekoizpena ez dago martxan kooperatiba oraindik Endesarekin lotura izateko zain dagoelako.
- Mas Pinóseko (Tiuranan, Lleidan) proiekturako IDAEn CE-Implementa dirulaguntza lortzea.
- Asomada II (Cartagenan, Murtzian) eguzki-instalazio fotovoltaikoa abiaraztea.

Autoekoizpena

Jaume Josak Som Energiarentzako oso gai garrantzitsua eta onuragarria den gai baten berri eman du.

2022 urtearen hasieran ia 5.000 autoekoizpen-kontratu zeuden eta amaieran ia 10.000. Kooperatibak 2022 urtean autoekoizpen-kontratuen kopurua ia bikoiztu egin du.

Gertaera nabarmen bat ere aipatu du, 2022ko 5.000 autoekoizpen-kontratuen soberakinek ia 0,5 GWh ekoitzi zituzten eta urtea bukatzean, kontratu-mota horiek ia bikoiztu zirenez, 2022ko abenduan 1 GWh ekoitzi zuten. 10.000 kontratu horien 2022ko ekoizpenaren batura 20 GWh-koa da. Autoekoizpen horrekin, Som Energiak bere instalazioetan ekoizitakoa berdindu du. Hori kooperatibarentzako arnasbidea da, izan ere, soberakinari esker iristen zaion energia hori ez du merkatuan erosi behar.

Autoekoizpena: Erosketa kolektiboak

Jasume Josak dio kooperatibak 2022 amaieran kooperatibak dituen 10.000 kontratu horietatik 3.000 Som Energiaren Tokiko Taldeek bultzatutako erosketa kolektiboek eta talde horien laguntza zintzoari esker izan direla. Gainerako 7.000 autoekoizpen-kontratuak haien kabuz plakak instalatu dituzten bazkideen bidez iritsi dira kooperatibara.

Energia Komunitateak

Kooperatibak irmo egiten du apustu erreminta horren alde. Gidaritza-proiektu bat hasi da. Somcomunitats.coop webgunea martxan jarri da. Bertan Energia Komunitateentzat baliagarriak izan daitezkeen hainbat zerbitzu eskainiko dira: alten eta bajen kudeaketa administratiboa, sozietatearen bidea kudeatzeko ERP baten kudeaketa, ekintza eta zerbitzu energetikoak, bulego birtual bat, etab.

Hori guztia Singulars proiektuari esker, kooperatiba administrazioaren laguntza izaten ari da gidaritza-proiektu horiek aurrera eramanez ahal izateko. Erreminta hori beste 7 kooperatibarekin elkar-lankidetzan garatzen ari da eta Som Energiari indartsuago bihurtzen lagunduko dio.

Gainera, Som Energiaren blogean argitaratutako Energia Komunitateei laguntzeko hainbat gida erabiltzen hasi dira, sei zehazki.

Talde Teknikoaren antolakuntza

2022 urtean 2021ean hasitako Talde Teknikoaren berrantolaketa bat eginda K2Kren laguntzarekin. 2022an Gidaritza Taldea finkatu zen Koordinazio Orokorrerako oinarriak ezarri ziren. Gaur egun Marta Doncel eta Vic Carreñok osatzen dute Koordinazio Orokorra. Duela gutxi Som Energiaren webgunean argitaratutako beste hainbat aldaketa egon dira Talde Teknikoaren antolakuntzan. Orain Merkaturatze Taldearen barne-berrantolaketan lan egiten ari dira, baita pertsona- eta erakunde-bazkideak artatzeko eredua berriz zehaztean ere, kooperatibaren oinarri horri oraindik hobeto heltzeko.

Compliance laburpena

Som Energiak Errektore Kontseiluak, kooperatibaren Talde Juridkoak eta kanpoko talde juridiko batek osatutako Etika Batzorde bat du. Batzordeak 2022an 21 politika onartu zituen, zeinek barne hartzen dituen prebentzio penalerako ereduak, gobernantza, komunikazioa, kapitala zurtzearen prebentzioa, komunikazioa, jabetza intelektuala, kooperatibak erakunde arautzaileekin duen harremana eta askoz gehiago. Orain ere Batzordeak lanean jarraitzen du. Jaume Josak adierazi du Compliance inguruko formakuntza jarraitua ematen zaiela Talde Teknikoari, Errektore Kontseiluari, Kontu Hartzaitzari eta Tokiko Taldeei.

7. Orain arte onartutako mozioen jarraipena

Paco Jofrak hartu du hitza eta mozioen kontu eman du. Gai-zerrendako puntu hori bozkatu egin da.

Martxan dauden mozioak

- Konpentsatu gabeko autokontsumo-soberakinak konpentsatzea eta kudeatzea 2023tik aurrera aplikatu ahal izateko.
Berri onak dira kasu horretan, izan ere, erreminta berri horren *naming*-prozesua bukatu da: «Flux Solar» du izena, eguzki-emia. Prozesu horrek lan handia sorrarazi dio Talde Teknikoari eta Paco Jofrak lan hori azpimarratu du eta Batzarraren aurrean eskertu egin du. Aldi berean, iragarri du uztailean lehenengo gidaritza-proba egingo dela kooperatibako bazkide batzuekin.
- Normalizazio linguistikoa kooperatibaren funtzionamenduan.
Mozio hori bi ataletan landu da. Batean, Talde Teknikoak kooperatibaren arreta- eta laguntza-sistema osoa aztertu du eta, bestean, Talde Teknikoa eta Errektore Kontseilua Aldi Baterako Lantalde batean inplikatu dira protokoloak egiteko eta kooperatibaren bizikidetzaren dibertsitate linguistikoaren kudeaketa zabaltzeko. Orain Batzar Nagusian egiten den aurkezpen hibridoa (ahozko aurkezpena hizkuntza batean eta idatzizkoa beste batean) Aldi Baterako Lantalde horretatik dator.

Hasteke dauden mozioak

- Hainbat baldintza edo zailtasun ekonomiko dituzten pertsonentzat gizarte-tarifa bat eskaintzea aztertzea.
Talde Teknikoak eta Errektore Kontseiluak mozio hori jaso dute 2023rako urteko planaren helburu gisa.
- Som Energiaren Talde Teknikoaren zentralizazioaren eragina aztertzea.

Paco Jofrak adierazi du 2024ko Batzar Nagusirako ebazteko konpromisoa duela kooperatibak. Iragarri du jada horretan lanean ari direla eta talde batzuetan birtualak edo deszentralizatuak izan litezkeen hainbat plaza gehitzeko lanean ari direla (Lanekoa eta Energia Komunitateak).

- Lobby fiskalaren bidez autoekoizpen-instalazioak sustatzen laguntzea. 2024ko Batzar Nagusirako ebazteko konpromisoa. Paco Jofrak, lobby politikoaren ekintzei dagokienez, gogoratu du Talde Teknikoa hamabost egunez behin doa CNMCra. Kooperatibak beste elkartasun batzuetan ere parte hartu du, adibidez pixkanaka eragina izateko eta autokontsumoa errealitate bihurtzeko Autokontsumorako elkartasunean.
- 2019tik hasteke dago aerotermia energia berdea, berriztagarria den edo ez balioesteko mozioa. Hori ere 2024ko Batzar Nagusirako ebazteko konpromisoa hartu dute.
- Azkenik, kooperatibaren Hezkuntzarako, formakuntzarako eta sustapenerako funtsaren 1/3 tokiko trantsizio-ekimenei laguntzeko gordetzea proposatzen duen mozioa. Hori ere 2024ko Batzar Nagusirako lantzeko konpromisoa hartu dute.

Amaitutako mozioak

- Kanpoko sarean partekatutako autoekoizpena lehenestea eta hori garatzeari epe laburrean eta ertainean denbora, pertsona eta baliabide gehiago eskaintzea, eta suertatzen diren aukerak aprobetxatzea. Talde Teknikoak jada sorkuntza-estrategian (ACCX ereduari) eta 2023 Urteko Planari sartu du, Matarón eta Gironan gidaritzatza-proba bana dituen hiriko sorkuntzarekin (GURB) batera.
- Paco Jofrak itxi diren lau mozio aipatu ditu. Ixtearen arrazioak kooperatibatik kanpo erantzuna eman izana edo egoerara zeharo ez egokitzea izan dira. Hona hemen aipatutako mozioak: 1) Europako kooperatibekin batera energia fotovoltaiko flotatzailea aztertzea eta balioestea; 2) presen kudeaketa baliabide berriztagarrien helburuetara gehitzea, 3) Som Energiak (benetako) aktibismoa egitea oligopolioaren emakida hidroeletrikokoak berritzearen kontra, eta 4) Som Energiaren eta ekoizle independente baten (*Power Purchase Agreementen*) arteko salerosketa akordioetarako finantza- eta merkataritza-esparru bat garatzea.
- Itxitako mozio zaharragoak, 2019koak, tokiko komunitateak sorkuntza-proiektuen finantziazioan parte hartzea (aurrerago azaltzen da Generation kWh-ri buruzko puntuan), hondamendi naturalen eraginpeko pertsonentzako laguntza (La Palmako sumendiaren erupzioagatik sortu zen eta horren inguruko protokolo oso bat sortu zen), ondasun komunaren ekonomiaren balantzea aplikatzea (hori jada kooperatiba-mailan egiten da gizarte-balantzerako erremintzen bidez) eta animalien tratatu txarretatik datorren energia baztertzea (biogasa), zein 2021ean hartutako erabaki batean ebatzita geratu zen.

- Azkenik, azaldu du aurten ez dela mozioen bide izateko Particparako mekanismorik, Kataluniako Kooperatiben Legeko akordioa berez mantendu bada ere, zeinek hori aurreikusten duen mozioaren aurkezpenarekin 500 bazkideren babesarekin batera.
- Zentzu horretan, Errektore Kontseiluak antolatutako hainbat bazkidek egindako proposamen bat lehenetsi du. Proposamena unibertsitatean Som Energiari buruzko katedra bat egitea aztertzean datza eta jada proposamen horretan lan egiten hasi dira.

8. Som Energiaren egutegi demokratikoa

Paco Jofrak hartu du hitza eta kooperatibaren egutegi demokratiko berriaren proposamena azaldu du. Puntu hori bozkatu egin da.

Seinalatu du partaidetzaren diagnosi-prozesuan eta kooperatiban egindako barne-hausnarketan bahera hauek aurkitu direla:

- 1) Etengabeko elkarrizketa indartzea parte hartzeko moduak dibertsifikatuz
- 2) Interesa sortzen duten gaietarako eta berariazko hainbat talderentzako guneak sustatzea, esaterako mistoak ez diren taldeentzako edo oso zehatzak diren gaietarako.
- 3) Kooperatibako partaidetza 3 eremutan banatzea: estrategikoa, antolatzailea eta eraginkorra.
- 4) Kooperatiba gehiago deszentralizatzea Tokiko Taldeek antolakuntza-erabaki eta erabaki eraginkor gehiago hartzeko aukera izan dezaten.
- 5) Mozioen lanketa-prozesua hobetzea Batzarrera aberastuta eta zehaztuta iritsi daitezen eta kooperatibaren jardunean hobeto txerta daitezen.
- 6) Partaidetzarako denbora gehiago ematea gaituagoa eta sakonagoa izan dadin.
- 7) Partaidetza-egutegia kooperatibaren urteko plangintzara moldatzea.

Behar horietatik, jarduteko bost bide sortu dira.

Hauek dira egutegi demokratiko berriaren proposamenaren ezaugarri nagusiak:

1. Parte hartzeko moduak dibertsifikatzea: etengabeko elkarrizketa indartzen jarraitzea Tokiko Taldeekin hitz eginez, topaketen eta gaiei buruzko tailerren bidez, berariazko taldeen topaketekin eta Som Energiaren Komunikazio Plana indartuz.
2. Gran Conversa: bi urtean behingo bazkideen / Talde Teknikoaren / Errektore Kontseiluaren arteko deliberazio prozesua. Orain arte urtero egiten zen.
3. Prestakuntza Plana birformulatzea: Aula Popular indartzea Som Energiaren Eskolarekin lan egiteaz gain.

4. Participa indartzea: erabilgarritasuna hobetzea eta trazabilitatea hobetzea arintasun handiagoz parte hartzeko, kooperatibaren bazkide gisa.
5. Mozioen prozesua hobetzea mozioak Batzar Nagusira zehatuago eta aberastuago irits daitezten. Parte hartzeko tarteak luzatzea eta mozioen prozesua Errektore Kontseiluko eta Talde Teknikoko prozesuetan integratzea.

Mozioen ziklo berrirako proposamena:

Mozioak bazkideek haien proposamenak kooperatibako Batzar Nagusira helarazteko duten erreminta da. Honela antolatzen da ziklo berria:

Urtean zehar 1. urteko urtarrilera arte: bazkideek proposamen estrategikoak helaraz ditzakete ezartzen diren kanalen bidez.

1. urteko otsailean: Gidaritza Taldeak eta Errektore Kontseiluak, Eraldaketa Energetikoa eta Komunitatea Taldeak lagunduta, proposamen horietatik 1-3 hautatzen dituzte sozietate-oinarriarekin lantzeko.

1. urteko martxotik urrira: mozio hori sakontasunez aztertzen eta lantzen duen Aldi Baterako Lantalde bat sortzen da. Talde horrek nahi duten bazkideak, kanpoko eragileak, etab. bil ditzake kooperatibako Eraldaketa Energetikoa eta Komunitatea Taldeaz gain.

1. urteko azaroan: mozio horren Aldi Baterako Lantaldearen eta Errektore Kontseiluaren eta kooperatibako Talde Teknikoaren arteko elkarrikeria, mozioa ondo egokitzen dela bermatzeko.

2. urteko urtarriletik otsailera: Aldi Baterako Lantalde bakoitzak azkenean Batzarrean aurkeztuko diren mozioak edo lanaren laburpen bat eta ondorioa lantzen ditu zereginekin bukatzeko.

2. urteko maiatzean: Aldi Baterako Lantaldeek aurkeztutako mozioak azaltzen dira eta Batzarrean bozkatzeko dira. Onartzen badira, GTTak berak behar bezala zabal daitezten zaintzen du.

Paco Jofrak bukatu bozkatuko den puntua jakinaraziz: *«Egutegi demokratikoaren proposamen berriaren onarpena, hala badagokio».*

9. Barne Araudiaren aldaketak

Aina Barcelók azaldu du puntu hori eta bozkatu egin da.

Barne Araudiak kooperatibako gobernantza-espazioetako funtzionamendua arautzen du.

Aurkeztu diren aldaketak kooperatiban egondako aldaketetara moldatzeko izan dira eta egungo funtzionamendua jasotzeko.

1. Proposatzen den lehen aldaketa Barne Araudiaren kudeaketari buruzkoa da. Horren helburua aurreko 2022ko Batzar Nagusian hartutako akordioa txertatzea da, zeinetan adostu zen Barne Araudia aldatzeko gehiengo soila behar izatea ordura arte behar zen gehiengo kualifikatuaren ordean (Kataluniako Kooperatiben Legeak kontrakoa aurreikusten duen gaitan izan ezik).

Hau da botatuko den puntua: «"1. RRIaren kudeaketa" puntuan aipatzen diren Barne Araudiaren aldaketen onarpena, hala badagokio».

2. Gaur bozkatuko den Barne Araudiko hurrengo puntua mozioei eta Aldi Baterako Lantaldeei buruzkoa da.
 - 2.1. Mozioei dagokienez, «Batzarra» kapituluko epigrafean idatzitakoa zaharkituta gelditu da eta kentzea proposatzen dute orain kooperatibako egutegi demokratiko berrian gehituta eta zabaldua daude eta.
 - 2.2. Aldi Baterako Lantaldeei buruzko epigrafea ere kentzea proposatzen da, mozioak bezala, Aldi Baterako Lantaldeak ere Som Energiaren egutegi demokratiko berrian gehituta egongo direlako.

Horrela, bozkatuko den puntua «"2. Batzarra" eta "6. Aldi Baterako Lantaldeak" puntuei dagozkien moldaketak onartzea, kasua bada»

3. Gaur bozkatuko den Barne Araudiaren azken moldaketa kooperatibaren barne-antolakuntzaren atalaren egokitzapenari buruzkoa da. Jatorrizko testuak egun indarrean ez dagoen kudeatzailtza taldeari buruz hitz egiten du, proposamenak, ordea, kooperatibaren Gidaritza Taldea gehitzen du. Talde hori osatzen dute 1) gardentasunaren, inpartzialtasunaren, eta errespetuaren eta asertibotasunaren irizpideak jarraituz era demokratikoan eta txandakakoan hautzen diren autokudeatutako talde bakoitzeko pertsonak eta 2) Errektore Kontseiluak Gobernantza Politika jarraituz kooperatibaren Koordinazio Orokorrerako hautatutako bi pertsona. Taldearen xede nagusia erakundeak ikuspegi eta estrategia garbiak izatea, eta Talde Teknikoaren kohesioa zaintzea da. Gidaritza Taldearen antolaketa eta funtzionamendua bileren eta akordioen Dokumentazio Politikan jasotzen da.

Hau da orain bozkatuko den puntua: «"4. Gidaritza Taldea" puntuari dagozkien moldaketak onartzea, kasua bada».

10. 2023ko ekintza-planaren aurkezpena

Aina Barcelók aurkeztu du informazioa emateko helburua duen puntu hau.

2023ko Ekintza Planak 4 ardatzeko ekintza-plana du:

1. Talde Teknikoa garatzea bultzatzea efizientzia eta ongizatea areagotzeko

2. **Energia-eraldaketan parte hartzen duten pertsonen kopurua handitzea**
3. **Merkatu elektrikoaren barruan autonomia gehiago irabaztea**
4. **Egungo zerbitzuak hobetzea eta eskaintza zabaltzea**

1. **Talde Teknikoa garatzea bultzatzea efizientzia eta ongizatea areagotzeko**

- Eskuzko kudeaketa gainditzeko etengabe barneko prozesuak hobetzea
- Hezkuntza Plana zabaltzea
- Telelan-eredua ezartzea
- 35 orduko lanaldia aplikatzea
- Aukera Berdintasun Plana garatzea
- Hiru hilabete behin laneko gogobetetzeari buruzko inkesta egitea
- Norbanakoen eta taldeen jarraipena egitea: lan-ingurunea eta Koordinazio Orokorra

Honen hobekuntzarekin eta zabalkuntzarekin:

- Koordinazio Orokor berria
- Gidaritza Taldea
- Konpromiso Taldea
- IT taldea etengabe indartzea
- Aldi Baterako Lantaldeak
- Proiektuaren ekonomia- eta gizarte-adierazleei aldizka arreta eskaintzeko kultura
- Autokudeaketa-kultura

2. **Energia-eraldaketan parte hartzen duten pertsonen kopurua handitzea**

Energia Komunitateak bultzatzea (Singulars proiektua, Kataluniako dirulaguntza)

- Energia Komunitateak bultzatzeko eta haiei laguntzeko Som Comunitats plataforma garatzea, martxan jartzea eta kudeatzea
- Energia Komunitateen ekimen aitzindarien eskakizunak betetzea eta behar horiei erantzuteko garatzeke dauden zerbitzu berriak identifikatzea.
- Energia Komunitateak energia- eta gizarte-eredua eraldatzeko tresna erabakitzaile gisa kokatzeko akordio estrategikoak garatzea.
- Katalunian Energia Komunitateen sare bat sortzea bultzatzea
- Eredua Kataluniatik kanpo eramateko elkartasunak sortzen hastea.

3. **Merkatu elektrikoaren barruan autonomia gehiago irabaztea**

Sorkuntza propioaren estrategia

- Hiriko sorkuntza: Som Energiak sustatutako partekatutako autokontsumoko lehen instalazioak zabaltzea proiektuaren eskalabilitatea balioztatzeke eta eredia zehazteko. Mataróko gidaritza-proba.
- Lehenbailehen sorkuntza propioa handitzea: eguzki-instalazio fotovoltaikoen proiektuak era aktiboan sustatzea, Espainia osoko sustapenerako modalitate eta kanal guztiak aprobetxatuz.
- Eguzki bidezko sorkuntza-orduetatik kanpo ere energia sortzea (energia iturrien nahasketa areagotzea):
 - Epe luzera proiektu eolikoen sorkuntza bultzatzea.
 - Dauden instalazioak hibridatzearen bidegarritasuna aztertzea.
- Nekazaritza- eta energia-erabilera bateragarri egiteko nekazaritzako energia fotovoltaikoko instalazioak garatzeko aukera aztertzea.

Tarifa indexatua

(Handizkako merkatu elektrikoan duen kostuaren arabera ordutik ordura aldatzen den tarifa. Beraz, egunean 24 prezio ditu, egunetik egunera, orain arte kontsumo handiko kontratueterako bakarrik dago eskuragarri).

2023an:

- Etxeko kontratuen gidaritza-proba balioztatzea
- Tarifa indexatua ezartzea eta finkatzea
- Tarifa modalitateak garatzea; gure instalazioen edo PPA (*Power Purchase Agreement*) egiten dugun instalazioetako prezioan indexatuta.

Tarifa indexatuaren garrantzia bazkideak kontsumoa aurrezteko gaitasun handiena eskaintzen dion eguneko ordura egokitzeko gaitasuna izatean datza.

Ordezkaritza-zerbitzua

- Ordezkaritza bultzatzea: instalazio berriztagarri bateko energia merkatu elektrikoan saltzea kudeatzen duen jardura da.
- Ekoizle gehiagorengana iristea balio erantsidun zerbitzuak eskainiz (izapideen, operazioaren eta abarren inguruko aholkularitza) 2022an 67 ordezkaritza izatetik 2023ko apirilean 164 izatera pasa dira.
- Mailaz igotzea ahalbideratzen duen zerbitzua eskaintzeko beharrezko erremintak garatzea.

Autoekoizpena sustatzea

- Erosketa kolektiboak sustatzen jarraitzea: orain 65 daude martxan
- Etxebizitza-blokeetarako autokontsumo-gida eguneratzen jarraitzea, auzokoen erkidegoentzat
- Autokontsumo kolektiboa sustatzea: egungo erritmoa hilabeteko 500 autoekoizpen-kontratu berrikoa da
- Bazkideentzat prestakuntza berriak eskaintzea

4. Egungo zerbitzuak hobetzea eta eskaintza zabaltzea

- [martxan] Bulego Birtualaren bidezko TPV ordainketa
- [martxan] Bulego Birtualaren bidezko hornikuntzaren bajak, automatizatutako prozesua
- [aribidean] Tarifa indexatua etxeko kontratuetara zabaltzea
- [aribidean] Autokontsumo-soberakina kudeatzeko era berriak zabaltzea
- [aribidean] Generación kWh (La Serrako eta Tiuranako proiektuak)
- [aribidean] Sarean partekatutako autokontsumorako gidaritza-proba
- [aribidean] Eskariaren malgutasuna (RescoopVPP proiektua) VPP: Virtual Power Plant. Kontsumoak sorkuntza handieneko orduetara edo kostu ekonomiko txikienekoetara mugitzeko gaitasuna aztertzen duen proiektu berritzailea.

Lehenetsitako beste helburu batzuk:

- Espainiako Merkatu eta Lehia Batzordeak (CNMCK) bultzatutako araudi-aldaketak ezartzea
- Sektorerako lobby-estrategia bat zehaztea eta ezartzea
- Hazkunde-estrategia bat zehaztea eta ezartzea
- Komunikazio-plana zabaltzea
- Bazkideak artatzeko zerbitzua hobetzea
- Energia kontrolatzeko eta kudeatzeko sistemak hobetzea
- informazio ez-finantzarioaren egoera-orria garatzen hastea
- Lan-bazkidearen eta bazkide-laguntzailearen kontzeptua aztertzea

11. 2023ko aurrekontuaren aurkezpena

Borja Barredok aurkeztu du puntu hori eta bozkatu egin da.

Batzarrari jakinarazi dio Talde Teknikoak eta Errektore Kontseiluak 2022 amaiera aldera aurrekontu hori landu zutela une hartan indarrean zeuden prezioen arabera. Kontuan hartu beharra dago, 2023ko apirilean kooperatibak prezioak eguneratu, jaitsi, zituela.

Aurrekontu zuhurra da eta lehenago aipatutako kontratuen galera kontuan hartzen du. Bertan % 0,5 eta % 2,5 arteko EBITDA galdatzea da, helburua 0,99koa (% 1,00) lortzea izanik. 2023rako aurrekontua 2022ko altxortegi beteari dagokionez oso zuhurra dela azaldu du: merkaturatze-marjinak % 44 egiten du behera, 2022an 16 M eurokoa izatetik 2023rako 8 M euroko aurrekontua izatera pasatzen da.

Soldata-gastuek era nabarian egin dute gora KPlaren eguneraketatik eta ia lantalde guztiak indartu direlako.

2023an hornidura-sailak ere gora egin du ez-ordaintzeak eta horren antzeko egoerak egon daitezkeela aurreikusiz.

Borja Barredok azpimarratu du Talde Teknikoa etengabe dagoela energiaren prezioari erne. Kooperatibak ia lanaldi osoan bilatzen den marjina lortzeko behar den energia-bolumena eta horren kostuak kalkulatu ematen duten 6 pertsonaz osatutako hornikuntza-talde bat du. Hala ere, merkaturatzea oso konplexua eta hegakorra da. Hori dela eta, kooperatibak maneiatzen duen bolumena kontuan izanda, erraza da desbideraketak izatea.

Hau da bozkatu den puntua: «2023ko aurrekontuaren onarpena, hala badagokio».

12. Kapital sozialari egindako borondatezko ekarpenen gainerako urteko interes-tasa

Paco Jofrak aurkeztu du, bozkatu beharreko puntu hori.

Urtero bazkideek kooperatibari egiten dizkieten borondatezko ekarpenen urteko interes-tasa bozkatzen da. Ekarpene horiek batetik, kooperatibaren proiektuak diruztatzeko erabiltzen dira, sorkuntza-proiektuak adibidez; eta bestetik, hegakortasun handiko prezioak egon diren urte zail hauetan likidotasun handiagoa izateko.

Gai hori asko landu eta eztabaidatu dute Talde Teknikoak eta Errektore Kontseiluak. Lanketa horretan kooperatibarekin elkartasuna duten beste kooperatiba batzuek zentzu honetan nola jardun duten ikusi dute, partaidetza-diagnosia eta Euriborraren hazkunde handia kontuan hartu dira. Testuinguru horretan kooperatibak % 1a bakarrik eskaintzen duela kontuan hartuta, Batzarrean 2023rako % 2ra igotzea proposatu dute. Paco Jofrak nabarmendu du naiz eta tasa hori finantza-produktu gisa ez ikusi, ez direla bazkideek kooperatibaren kapital

sozialari egiten dizkieten ekarpenak galdu nahi, eta horregatik proposatu dela % 2ko interes-tasa aplikatzea 2023/07/01etik 2024/06/30era arte.

Bozkatuko den puntua: «*Kapital sozialari egiten zaizkion borondatezko ekarpenetan % 2ko urteko interes-tasa aplikatzea onartzea, hala badagokio*»

13. Generation kWh berriz irekitzea

Aina Barcelók bozkatu beharreko puntu hau azaldu du.

200 MWp-ko zentral handiek ez bezala, Som Energian bazkideen partaidetza duten lurraldean zehar banatutako proiektu txikien alde egiten jarraitzen dugu

Laster berririkiko da Generation kWh 2 instalaziotara bideratutako 3 M euroko balioarekin. Hauek dira instalazio horiek:

- PSF La Serra, Anglesolan (Lleidan): lekuan bertan dagoen 2,8 MWp-ko instalazio fotovoltaikoa neurri batean diruztatzeko.
- PSF Mas Pinós, Tiuranan (Lleidan): lekuan bertan dagoen 3,5 MWp-ko instalazio fotovoltaikoa neurri batean diruztatzeko.

Instalazio horiek, Generation kWh-en esparruan, jada ekoizten ari diren beste 2etara gehituko lirateke, Alcolea Sevillan eta Fontiveros Ávilan.

Kasu honetan, Generation kWh hainbat fasetan irekiko da berriro eta lurraldean bizi diren pertsoneri honela lehentasuna emango die. Honela antolatuko da:

1. fasea: tokikoa, Anglesola eta Tiurana udalerrientzat bakarrik, 15 egunez.
2. fasea: instalazioen inguruko 15 km hatzen dituen eskualdeko-fasea.
3. fasea: Lleidako probintziara hedatzen da.
4. fasea: azkena, bazkide guztiei ematen zaie parte hartzeko aukera.

Anglesolako La Serra instalazioak 2,8 MWp-ko potentzia izendatua du. Proiektu hori 2018an hasi zen eta horretan 1.700.000 euro inbertitzea aurreikusi zen. Orain proiekturako behar den inbertsioa eguneratu da eta 2.050.000 eurokoa da. Kooperatibak Generation kWh ireki zuen bi zifra horien aldea, 350.000 euro, ordaintzeko. Dagoeneko eraiki da La Serrako instalazioa eta sarearekin konektatzeko fasean dago.

Tiurana: Proiektuak CE-Implementa programaren dirulaguntza bat lortu du. 2.650.000 euroko inbertsioa izango du eta urteko 5,5 GWh-ko ekoizpena.

Bi instalazioetako ekoizpena batuta 4000 familia hornitzeko gaitasuna dute.

Talde Teknikoak Generation kWh berriro irekitzea aprobetxatu du Som Energiaren Bulego Birtualean hobekuntzak egokitzeko. Esate baterako:

- Kontratuei lehentasunak esleitu ahal izatea
- Parte-hartzaile bakoitzari azken 12 hilabeteetan esleitutako Generation kWh energiari buruzko informazioa izatea
- kWh horiek nola erabili diren ikusi ahal izatea
- Kotsultatzea zenbat kWh dauden esleitzeke
- Informazio fiskala izatea
- Generation kWh tarifaren aurreko urtean ekonomikoki aurreztutakoa ikustea, prezio estandarrekin alderatuta

Beraz, hau da aurten bozkatuko den galdera: «*Tokiko partaidetzari lehentasuna emanaz (tokiko fasea, eskualdeko fasea, probintziako fasea eta azkenik estatukoa) berriz ere Generation kWh irekitzearen alde eta LA SERRAKO (Anglesolan, Lleidan) eta MAS PINÓSEKO (Tiuranan, Lleidan) proiektuak Generation kWheko proiektu-zorrora gehitzearen alde zaude?»*

14. Errektore Kontseiluko karguak berritzea

Kontseiluko kideak 4 urteko agintaldiaren ondoren, urtero, laurdenka berritzen direla ezartzen duen Estatutuetoako 46. artikulua araber, aurten 2019/05/25eko Ohiko Batzar Nagusian izendatutako kideek bukatuko lukete agintaldia.

Hala ere, bi kontseilukide horiek, eta haien ordezkoe, justifikatutako arrazoiengatik alde aurretik uko egin zioten karguari, jarraian adierazten diren datetan:

- 2021/05/01ean karguari uko egin zion Mario Andrés Lópezek eta [.....] IFZdun Albert Clusellas Vilasecak kontseilukideak ordezkatu zuen. Aipatu bezala, bigarren horrek ere karguari uko egin zion 2022/11/19an.
- 2022/06/21ean [.....] IFZ zuen Sara Gutiérrez Alonso kontseilukideak ere karguari uko egin zion eta [.....] IFZdun Montserrat Sagarra Fitók ordezkatu zuen, baina 2022/10/06an berak ere karguari uko egin zion.

Ondorioz, Kontseiluko kideak 4 urteko agintaldiaren ondoren, urtero, laurdenka berritzen direla ezartzen duen Estatutuetoako 46. artikulua araber, aurten Errektore Kontseiluko bi (2) kide hautatzea tokatzen da.

Bertaratutakoek eta ordezkaturako bazkideek zegokien boto sekretua eman ondoren, hauek izan dira boto gehien jaso zituzten pertsonak eta, ondorioz, hurrengo 4 urteetarako Errektore Kontseiluko kide hautatu zirenak:

- Mariela Frankon Peses, adin nagusikoa, [.....] IFZduna, [.....] jaioa eta helbidea hemen duena: [.....]. Batzar Nagusia 2023ko maiatzaren 27an, 2027ko maiatzaren 27ra arte Errektore Kontseiluko kide izendatua.

- Sílvia Garcia Amadó, adin nagusikoa, [.....] IFZduna, [.....] jaioa eta helbidea hemen duena: [.....]. Batzar Nagusiak 2023ko maiatzaren 27an, 2027ko maiatzaren 27ra arte Errektore Kontseiluko kide izendatua.

Unean bertan hautatutako pertsonak han zirela, kargua onartu eta adierazi ziten ez zutela kargua betetzeko legezko edo estatutupeko bateraezintasun-arrazoirik.

15. Kontu Hartzailetzako karguak berritzea

Epe jakin baterako kontu-hartzaile izateko hautatu zituzten [.....] IFZdun Carles Cuadern Codina eta [.....] IFZdun Joaquim Ruiz Querol eta haien agintaldia amaitu da.

Estatutuetak 52. artikuluan xedatutakoaren arabera zegokion bozketa sekretuaren ondoren, [.....] IFZdun Mírvia Aranda Marín eta [.....] AIZdun Sofia Kukulka Luque hautatu eta kontu-hartzaile berri izendatu zituzten hiru urteko eperako.

Unean bertan hautatutako pertsonak han zirela, kargua onartu eta adierazi ziten ez zutela kargua betetzeko legezko edo estatutupeko bateraezintasun-arrazoirik.

Beraz, hemendik aurrera kide hauek osatuko dute kooperatibako Kontu Hartzailetza:

- [.....] IFZdun Jesús Salgado Criado, adin nagusikoa, [.....] jaioa eta helbidea hemen duena: [.....]. Batzar Nagusiak 2021/05/09an izendatu zuen.
- [.....] IFZdun Mírvia Aranda Marín, adin nagusikoa, [.....] jaioa eta helbidea hemen duena: [.....]. Batzar Nagusiak 2023/05/27an izendatu du.
- [.....] AIZdun Sofia Kukulka Luque, adin nagusikoa, [.....] jaioa, egoera-zibila eta helbidea hemen duena: [.....].

16. Errektore Kontseilua ahalduntzea hartutako akordioak gauzatzeko eta horien inskripzioa egiteko

Aldeko 376 botorekin adostu da kooperatibako Errektore Kontseiluko kide guzti-guztiei, haien kabuz zein batera, akordio hauek osorik edo partzialki ziurtatu ahal izateko ahalmena ematea, Zuzenbideak galdatzen duen neurrian. Horrela, notarioaren aurrean agertu eta akordioak publiko egin ditzakete, hala badagokie, eskritura egokiak egin, baita beharrezko

argitze-, berrespen- eta zuzenketa-eskriturak egin ere, dagozkien erregistroetan inskripzioa egitea lortu arte. Horrek barne hartzen du erregistro-kalifikazio baten ondoriozko estatutuen aldaketa formalak eta legalak egiteko ahalmena ematea, aipatutako inskripzioa egiteko beharrezkoa bada.

17. sozietate-oinarriak mahaigaineratutako zalantzen erantzunak

Ekonomia-blokea

Ricard Jornetek bazkideen kontsultetako bati erantzun dio azalduz erreserbei emaitza ekonomikoa aplikatzeko proposamena bozkatu eta onartu behar dela. Ez da banaketa bozkatu, Som Energia irabazi asmorik gabeko kooperatiba izanik, emaitzaren banaketarako aukerak legez nahitaezko erreserba-funtsera eta borondatezko erreserba-funtsera murrizten baitira. Erreserben zati bat bazkideen prezioak murrizteko erabiltzeko aukerari dagokionez, esan du, hain zuzen, 2023 honetan tarifak doitu eta jaitsi direla eta horregatik 2023ko lehen 4 hilabeteetan kooperatibak 1,2 M euroko galerak izan dituela. Galera horiek 2022an hornitutako erreserbei esker har daitezke.

Gainera, **Ricard Jornetek** erantzun dio atal ekonomikoa bazkide guztientzat ulergarri izatea errazteko «EBITDA» hitza erabili ordez «zergen, amortizazioen eta interesen aurreko emaitza» erabiltzeari buruzko bazkide baten eskaerari. Proposamena jaso da eta kontuan hartuko da aurkezpenetan, etorkizuneko Batzarretan eta kooperatibako beste dokumentu batzuetan denentzako ulergarriagoa den hizkera erabiltzeko.

Sozietatearen blokea

Bazkide batek egutegi demokratiko berriko proposamenean aipatzen diren Aldi Baterako Lantaldeei (GTTei) buruzko kontsulta bat egin du. Galdetu du zeintzuek osatzen duten eta zein antolaketa duen. **Paco Jofrak** erantzun du Errektore Kontseiluak, Talde Teknikoak eta bazkideek osatzen dituztela GTTak. Bazkideen artean, alde batetik GTTa osatzeren arrazoi izan den ekimena bultzatu dutenak egoten dira eta bestetik, ausazko zozketa bat egiten da haietan sozietate-oinarriko dibertsitatea islatzen dela bermatzeko.

Bazkide batek dio egutegi demokratikoa oso dokumentu garrantzitsua dela kooperatibarako eta proposamen berri horrekin, Barne Araudian (RRIn) jasota egoteari uzten diola. Galdetu du ea egutegi demokratikoari Som Energiako beste dokumentu ofizial batzuetan erreferentzia egin beharko litzaiokeen, Estatutuetan, RRIn eta abarrean alegia. **Borja Barredok** erantzun du Batzar honetako RRInen moldaketetan ezin dela egutegi demokratiko berria agertu oraindik ez duelako gaurko Batzarrak onartu. Azkenean onartzen bada, partaidetzarako gida bihurtuko da eta Som Energiaren webgunean zabalduko eta argitaratuko da Estatutuekin, RRInekin, Batzarretako aktekin eta abarrekin batera. Halaber, hurrengo urterako Batzar Nagusirako RRIn gehituko litzateke.

Tokiko Talde Batek Batzarrari bere frustrazioaren berri eman dio, adieraziz kooperatibako tarifak ez direla lehiakorak, bazkideak galtzen ari direla eta kooperatiba motela dela besteak beste tarifa indexatuaren, Energia Komunitateen eta autoekoizpen soberakinen gaiekin. **Paco Jofrak** Tokiko Taldearen kezka jaso du eta aldi berean, azpimarratu du Som Energia proiektuaren balio erantsia ohiko merkaturatzailea ez izatean datzala. Izan ere, oligopoliotik bereizten den eredu apurtzailea da, deszentralizazioa eta partaidetza txertatzen ditu, hiritarren esku dago eta energia berriztagarrian lortzea bilatzen du. Pixkanaka, Som Energia urrun doa, zaila da bizkorra izatea, baina horretarako lanean ari da. Berriz ere nabarmendu du, 2023ko aurrekontuan sartu den % 1eko EBITDA hori, hain zuzen, tarifak pixka bat jaitsi ahal izateko eta Tokiko Taldeei eta kooperatiba osoari horrenbesteko esfortzua suposatzen dien bazkideen galera ekiditeko dela. Horrez gain, berriz azaldu du kooperatibak geroz eta sorkuntza proiektu gehiago izateko helburua duela eta hori lortzeak kooperatibari hornitzeko etorkizunen merkatura eta eguneko merkatura joateko beharra gutxituko diola. Ondorioz, independenteago bihurtuko da.

Talde Teknikoaren ekintza-blokea

Beste bazkide batek ez du ulertzen zergatik sartzen den Anglesolako La Serrako instalazioa berriro irekitzea Generation kWh-n, instalazio hori bere garaiko Generation kWh-k diruztatu bazuen. Galdetu du ea La Serra berriz ere diruztatuko den. **Aina Barcelók** erantzun du hasiera batean, 2018an, La Serrako instalazioak 1,7 M euroko kostua izango zuela aurreikusi zela eta zenbateko hori diruztatu zela. Generation kWh berriz ere irekitzea instalazioa bukatzeko beharrezkoa den amaierako kostua (350.000 euro gehiago) diruztatzeko dela.

Vila-Rodonako (Tarragonan) El Planot proiektuari buruzko beste galdera bat egon da. Bazkideak ez du ulertzen ez du ulertzen Som Energiak zergatik proposatzen duen nekazaritza-lurretan eta instalazio fotovoltaikoan, autosorkuntza instalazioen eta goi-tentsioko instalazioen proiektuz gainezka dagoen lurralde batean beste instalazio bat jartzea eta proiektua birplanteatzea espero du. Aina Barcelók jakinarazi dio bere proposamena jaso duela eta eskerrak eman dizkio egindako alegazioengatik. Gaineratu du eztabaida horri arreta handia eskaini behar zaiola eta oinarrian bi alderdiko gai bat dagoela: batetik, lekuan bertan instalazioak egitea eta bestetik, masifikatutako gunetan jarduteari uztea. Zentzu horretan, gai hori lantzeko elkarri entzuteko gunen bat eskaini du berriz ere.

Bazkide batek galdetu du ea lurraldeei kontsultatu zaien haien lurzoruan egiten diren instalazioei buruz eta nekazaritzako energia fotovoltaikoari buruzko GTTari buruz galdegin du. **Jaume Josak** esan du Som Energiak lurzoruan ekoizpen-proiektuak egiten dituenean, arreta berezia eskaintzen diola lurraldeko pertsonen entzuteari, instalazioa ingurunean integratzen dela zaintzeari eta lurra nola erabiltzen den kontuan hartzeari. Beti elkarrizketak izaten dira eta adostasunetara heltzea bilatzen da lursailen jabeekin, tokiko erakundeekin, udalarekin eta, hala badagokio, Tokiko Taldearekin. Nekazaritzako energia fotovoltaikoari dagokionez, Som Energiak ez du horri buruzko Aldi Baterako Lantalderik (GTTrik). Horri buruzko mintegiak egin dira, teknologia hori garatzen duten garatzaileekin harremana du kooperatibak, eta kooperatiba proiektuen bat egitea eta martxan dauden instalazioetan errentagarritasuna hobetzeko esku-hartzeren bat egitea aztertzen ari da.

Horrez gain, galdetu dute zergatik energia geotermikoa ez den energia berriztagarritzat hartzen eta **Jaume Josak** erantzun egin du. Adierazi du energia geotermikoa lurraren eta etxearen arteko bero-trukaketa bat dela: udan etxetik lurpera transferitzen da beroa eta neguan lurpetik etxera. Hori guztia elektrizitateak elikatutako bero-ponpa batek elikatuta egiten da. Horrela, elektrizitate hori iturri berriztagarrietatik badator (Som Energiaren kasuan bezala), energia geotermikoa energia berriztagarritzat hartu ahalko da. Baina elektrizitate hoti berriztagarriak ez diren iturrietatik badator, dagoen tokian dagoela, ezingo da geotermia energia berriztagarri kontsideratu.

Càrol Collek konpentsatu gabeko soberakinei buruzko galderei erantzun die eta zerbitzu horri, Flux Solarri, buruzko xehetasunak eman ditu.

Ezarpen-epeari buruz:

Jada konpentsatu gabeko soberakinei buruzko baldintza bereziak prestatuta daude, hau da zati juridikoa prest dago. Ezaugarri tekniko guztiak proba-fasean daude. Uztailaren hasieran aurrez hautatutako kontratu batzuekin (ahalik eta dibertsitate handiena izateko) gidaritza-proba bat egitea da eta denak behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzea. Kontuan hartu behar da kooperatiban 10.000 autoekoizpen-kontratu daudela eta denak behar bezala funtzionatzen duela bermatu behar da bazkide askori eragingo lioketen akatsak ekiditzeko. Horregatik kooperatiba zuhur jokatzeko ari da ezartzeko orduan. Urte honetako udazkenean ezarriko litzateke era orokortuagoan. Data hori gidaritza-proban sortzen diren zailtasunen arabera da eta, ondorioz, egon daitezkeen moldaketa berrien behararen arabera.

Adierazi du bazkide bati Flux Solar delakoa aplikatzen zaionean, kontratua aldatu eta berariazko baldintza berriak gehitu beharko direla. Aldaketa horiek ez dute kontsumoaren prezioan eraginik izango, Flux Solar-ean bakarrik aplikatuko dira. Bulego Birtualaren bidez baldintza horiek onartzeko berariaz jardun beharko denez, eragiten dien bazkide guztiei jakinaraziko zaie ekintza hori gauzatu behar dutela.

Ehunekoie dagokienez, eta gidaritza-proban aurreikusi gabeko kontuak ager daitezkeela kontuan hartuta, printzipioz konpentsatu gabeko soberakinen % 80 «Eguzki» edo deskontu-eskubide bihurtuko da. Deskontu-eskubide ez den gainerakoa, % 20, eraldaketa energetikoa dakarten beste ekintza batzuetara bideratuko da, hala nola, kooperatibako egitura mantentzera, eta merkaturatzearekin eta Flux Solarrarekin lotutako zerbitzura. Beraz, 80/20ko konbertsio-faktorea dagoela diogu.

Soberakinen konpentsazio-prezioari dagokionez, 2022ko urtarriletik sortu diren soberakinak metatzen ari dira, ez dira galtzen ari, eta deskontu-eskubidea aplikatzen denean, 2022ko urtarrilaren 1etik sortutako soberakinak kontuan hartuko dira. Une bakoitzean soberakinak konpentsatzeko dagoen prezioa aplikatuko da. Halaber, dagokionean indexatutako tarifa duten pertsonen, Flux Solarrean indexatutako tarifaren prezioak ere kontuan hartuko zaizkie.

Kontratuak partekatzeko aukerari dagokionez, Flux Solarra ezartzen denean, autoekoizpena egiten den CUPS bererako izango da. Aurrerago, beste momentu batean deskontu-eskubide horiek jabe berdinen beste kontratu batzuetara aplikatzeko aukera egon beharko da, baina

oraindik ez dakite noiz izango den hori (proba informatikoen arabera izango da). Jabe ezberdinak dituzten beste kontratu batzuetarako konplexuagoa izango da arrazoi fiskalak direla eta.

Kontsulta bat egon da kasu hipotetiko bati buruz: eguneko ordu nagusietan energiaren prezioa negatiboa bada (sarean energia sartzeagatik ordaindu beharko litzateke), tarifa indexatudun bazkideei eta soberakinen konpentsaziodun autokontsumo-kontratua duten bazkideei prezio negatibo horren eragina iritsiko litzatekeen galdetu dute. **Carolina Collek** erantzun du kooperatibak tarifa finko bat eskaintzen duela eta laster tarifa indexatu bat ere eskainiko duela. Soberakinen prezioa hautatutako tarifaren arabera izango da. Tarifa indexatuak arriskua erabiltzaileari transmititzen dio eta ondorioz, adierazitako kasuan, energiaren prezioa negatiboa bada, tarifa indexatudun bazkidearentzako ere negatiboa izango litzateke. Beste herrialde batzuetan gertatu bada ere, ez da espainiar estatuan jazo. Kooperatiba ez da inoiz egoera horretan egon eta gertatuko balitz, horri nola erantzun ikusi beharko litzateke. Bazkideak, dena den, beti izango du tarifa finkora pasatzeko aukera. Tarifa finkoarekin kooperatiba da arriskua bere gain hartzen duena.

Etxebizitza-blokeetako partekatutako autokontsumoari dagokionez, bazkide batek galdetu du kooperatibak nola egingo dien aurre lehiaren prezio oldarkorrei. Horri **Carolina Collek** erantzun dio helburua ez dela preziorik merkeena eskaintzea, baizik eta ekintza kolektiboa eskaintzea, hori dela erosketa kolektiboei balio ematen diena (instalazio solidarioa, etab.). Horrek prezio lehiakorragoak izatea errazten badu, ezin hobeto, baino ez dela azken helburua.

Autokontsumo kolektiboan geroz eta instalazio handiagoak izan, orduan eta merkeagoak dira proportzionalki. Jabeen erkidegoei aholkularitza eskaintzeko lan egiten ari da kooperatiba. Hainbat gidaritza-proba egiten ari da zehazteko zein zerbitzu eskaintzeak duen zentzua kooperatibari zein gizarteari balioa emateko. Urte honetan zehar eredu hori gehiago garatzea espero du kooperatibak eta horri buruzko edozein berri jakinaraziko du.

Hurrengo galdera animalien tratu txarrei buruzkoa da, 2019an horri buruzko mozio bat aurkeztu zen. Bazkideak ikusi du kooperatibak biogas instalazio bat duela eta berriz ere mozioa mahaigaineratzea proposatzen du ukuiluratutako animalietatik datorren energiaren ekoizpenari uko egitea gehituta. **Jaume Josak** jakinarazi du Som Energiak biogas-instalazio berririk ez jartzea adostu duela eta azaldu du planeta gehiago ez kutsatzeko erregai fosilik ez erretzea sustatzen dugun moduan, ukuiluratutako animalien abeltegiak jada existitzen direla, eta biogas instalazioen funtzioa lurra, zorupea eta akuiferoak kutsatzea ekiditea dela.

Generation kWh Gironan noiz egongo den galdetu dute eta **Aina Barceló**k erantzun du. Kooperatibaren helburua kontsumoa eta sorkuntza berriztagarria gerturatzea da. Lledian Anglesolako instalazioa bukatzen ari dira eta laster hasiko dira Tiuranakoarekin. Tarragonan Vila-Rodonako proiektua izapidetzen ari dira. Bartzelonako probintzian kooperatibari 2 lotune eman dizkiote eta Gironako probintzian ere lotune 1 eman diote. Azken 3 kasu horietarako bidegarritasun-azterketak egiten ari dira.

Paco Jofrak CNMCan/Energiaren Klusterrean kooperatiba ordezkatzeko duten pertsonak hautatzeko moduari buruzko galdera erantzun du esanez irizpide teknikoaren arabera dela.

Esate baterako, Unión Renovablesera Talde Tekniko gisa eta Errektore Kontseilu gisa doa kooperatiba. Kasu horietan Errektore Kontseilua beti informatuta mantentzen da.

Som Energiak bazkideen onurarako partaidetzapean mugikortasun elektrikoa sustatzeari buruz galdetu dute. **Paco Jofrak** erantzun du esanez kooperatiba Som Mobilitatekin elkar-lankidetzan ari dela Katalunian eta mugikortasun kooperatibak bultzatzen aritu diren Tokiko Taldeak daudela. Bultzatu dituzten kooperatiben artean daude ECotxe Mallorcan eta Kar Kar Kar Nafarroan. Gehitu du era horretako kezka Tokiko Taldeen bitartez bidera daitezkeela.

Paco Jofrak Gran Conversan landuko diren gaiet buruzko galdera bati ere erantzun dio esanez gorian dauden gaiak landuko direla: Som Energiaren hazkundearen dilema (adb. Tokiko Taldeen partaidetza proiektuaren hedapenean, Energia Komunitateak eta loturak lurraldearekin, energia-pobretasunari nola heldu egun merkatuarekiko dugun mendekotasunarekin, kontsumoaren desazkundera vs. sorkuntzaren hazkundera...), eta laburbilduz, hausnarketarako gune nabarmenak behar dituzten kooperatibarako garrantzitsuak diren gaiak.

Jarraipena egiten duten guneekin berriz ere konektatzea

Borja Barredok bigarren konexio-txanda hauei Valentziako jarraipen-gunearekin hasiera eman die. Bertan 27 pertsona bildu dira eta Errektore Kontseiluari azalpenen erritmoa moteltzeko eskatu diote. Sevillakoak jarraitu du, Torreblancan. Goizean barne-eztabaida handia izan ondoren, adierazi dute Espainiako errenta baxueneko auzoak Sevillan daudela eta auzo horiek Energia Komunitateen bidez, autokontsumoan sar daitezen saiatzen ari direla; gainera, birtualtasuna kentzea proposatu dute taldean pertsonen arteko hurbiltasuna errazteko. Bartzelonako Tokiko Taldea iritsi da, 28 pertsona bilduta dituela, eta Madrilgoa ere bai, zein Vallecako La Brecha kultur etxean bildu den, eta hautagaiei Errektore Kontseiluko kide izateko haien burua aurkeztea eskertu die. Konexio-txandak Kanaria Handiko Tokiko Taldearen parte-hartzearekin bukatu dira. Talde horrek esan du bihotzean arantza bat daramala burutu ez zen proiektua (lursaila izan arren, ez zen eguzki-baratze baten proiektua aurrera eraman) dela eta. Kooperatibari babes eskatu diote, gehituz Kanarietan petrolio-enpresek energiaren % 80 sortzen dutela eta energia berriztagarrietan inbertitzea premiazkoa dela. Tokiko Taldeak autokontsumoa ere bultzatzen du deskarbonizaziorako eta eredu ekonomikoa eta energetikoa aldatzeko konpromisoa du.

Jarraipenaren datuak

Jaume Josak partaidetzaren datuak eman ditu:

- 104 pertsona egon dira Gironan aurrez aurre
- 103 Tokiko Taldeetan
- YouTuben, 11:00k aldera (bistaratzeez gailurrean) 170 bistaratze egon dira
- 406 pertsonak bozkatu dute 13:00ak arte

- 440 pertsonak bozkatu dute 13:30ak arte

18. Kontu Hartzailetzaren agurra

Quim Ruiz: Kontu Hartzailetzako (IdCko) kide gisa Carles Cuadern ez izateagatik barkamena eskatu du eta azpimarratu du bien izenean hitz egiten duela. Bien karguaren iraupena Batzar Nagusi horretan bukatzen da.

Kontu Hartzailetzako kide gisa izan duten esperientzia eskertu dio Talde Teknikoari, Errektore Kontseiluari eta bereziki Talde Ekonomikoari.

Lortutako bi erronka garrantzitsuren azterketa txikia egin du. Lehenengoa Talde Teknikoarekin eta Errektore Kontseiluarekin oso harreman arina eduki izana da, Kontu Hartzailetzaren urteroko txostenetik askoz haratago joan dena. Asko ikasi du maila pertsonalean harreman horri esker. Bigarrena aurten Som Energiaren mugarri historiko bat lortu izana da, IdCn emakumeak egotea lortu da, izan ere hiru hautagaietako bi emakumeak direnez, hutsik geratu diren 2 plazetako 1 gutxienez emakume batek beteko du.

Gainera, adierazi du bi erronka betetzeke geratu direla: Kontu Hartzailetzan eskuordetze harmoniatsua egotea eta urtero IdCtik pertsona 1 irtetea eta pertsona 1 sartzea; eta IdCn sartzen diren pertsonen hasierako prestakuntza indartzea, bereziki merkatu elektrikoan eta Som Energiako tarifen prezioen osaketan.

19. Bozketen emaitza

	GALDERA	ALDE	KONTRA	ABSTENTZIO AK	ONAR TUTA
1	2022ko urteko kontuen onarpena, hala badagokio, eta emaitzaren aplikazioa	403	4	11	BAI
2	Egutegi demokratikoaren proposamen berriaren onarpena, hala badagokio	389	7	21	BAI
3	Barne Araudiaren moldaketen onarpena, hala badagokio				
3.1	"1. RRIaren kudeaketa" puntuan aipatzen diren Barne Araudiaren aldaketen onarpena, hala badagokio	349	13	35	BAI
3.2	"2. Batzarra" eta "6. Aldi Baterako Lantaldeak" puntuei dagozkien moldaketak onartzea, kasua bada	351	11	35	BAI
3.3	"4. Gidaritza Taldea" puntuari dagozkien moldaketak onartzea, kasua bada	355	9	33	BAI
4	2023ko aurrekontuaren onarpena, hala badagokio	396	4	10	BAI

5	Kapital sozialari egiten zaizkion borondatezko ekarpenetan % 2ko urteko interes-tasa aplikatzea onartzea, hala badagokio	388	15	20	BAI
6	Tokiko partaidetzari lehentasuna emanez (tokiko fasea, eskualdeko fasea, probintziako fasea eta azkenik estatukoa) berriz ere Generation kWh irekitzearen alde eta LA SERRAKO (Anglesolan, Lleidan) eta MAS PINÓSEKO (Tiuranan, Lleidan) proiektuak Generation kWheko proiektu-zorrora gehitzearen alde zaude?	377	15	25	BAI
7	Errektore Kontseilura aurkeztu diren hautagaitzen botazioa				
	Mariela Frankon Peses	255			
	Sílvia Garcia Amadó	225			
	Francisco Molinero Anchustegui	129			
	Miguel Ruiz Sánchez	72			
	Francesc Miralles Torner	71			
8	Kontu Hartzaitzara aurkeztutako hautagaitzen botazioa				
	Sofia Kukulka Luque	231			
	Mirvia Aranda Marín	228			
	Oriol Fàbregas Pujol	185			
9	Errektore Kontseilua adostutako akordioak gauzatzeko eta horien inskripzioa egiteko ahalduntzea onartzea, hala badagokio	376	2	7	BAI

Bertaratutako pertsonak ez dutenez iruzkin, iradokizun edo zalantza gehiagorik, presidenteak bilkurari amaiera eman dio 14:00etan eta nik, Borja Barredo Prietok, Errektore Kontseiluko idazkari gisa, berariazko lekukotza egiten dut bertaratu diren pertsona guztien nortasuna aitortu dudala.

Lekukotza egiten dut, halaber, Ohiko Batzar Nagusira bertaratutako bazkideen artetik nahi izan duten guztiek parte hartzeko duten eskubidea baliatu ahal izan dutela, ahoz edo idatziz esku hartuz.

Sinadurak:

Batzar Nagusiko presidentea

Batzar Nagusiko idazkaria

Akta honetako edukia irakurri ondoren sinatu egiten dut eta dagozkion ondorioak onartzen ditut kontu hartzaile gisa:

Aktaren kontu hartzaileen sinadura

Sílvia Garcia Amadó

Yaiza Blanch Górriz

1. ERANSKINA

Batzar Nagusian parte hartu duten bazkideen zerrenda (izena, abizenak, NANA eta bazkide-zenbakia)

Bazkidea	Bazkide-zenbakia	NAN/IFZ/AIZ
-----------------	-------------------------	--------------------